_elkarrizketa:

TXANI RODRIGEZ >

“Haurrek askatasuna eduki behar dutela adierazi nahi izan dut liburuan” 10.or

Sozioekonomia

Lan gatazka eta soldata altuengatik joan da Tubacex Kantabriara 6. or.

Kirola

Ibai Ruiz: “Kick boxinga oso kirol gogorra da, baina noblea” 12. or.

Iritziak:

TXEMA URQUIJO 2. or.
ASIER AMONDO 6. or.
ITZIAR LARRAZABAL 7. or.
PATXI ITURREGI 10. or.
ELI PINEDO 12. or.
JON MUÑOZ 11. or.
BELATE OLABARRIA 16. or

aiaraldea

Aiaraldeko hamabostekaria
2013 /// Azaroak 28 /// OSTEGUNA
5. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Gabriel Arestiri omenaldia: Harrizko herria eta Aiaraldea

Gabriel Arestiren omenezko egunak antolatu ditu Laudioko udalak. Batetik, poeta euskaldunak eskualdearekin izandako harremana herritarrei gogora ekartzeko. Eta, bestetik haren familiari eskerrak emateko. Besteak beste, idazle ezagunaren inguruko ikuskizuna, dokumentala eta hitzaldia egongo dira. Baita irakurketa kolektiboa ere. Jardunaldiak gaurtik asteartera arte egingo dira.

Gabriel Aresti (Bilbo, 1933-1975) idazle eta poeta euskaldunak harreman estua izan zuen eskualdearekin. Izan ere, egur tropikala saltzen egiten zuen lan. Lanbidez kontularia zenez, Laudio, Eibar eta Barakaldo bezalako herrietan errotu zituen, besteak beste, sustraiak. Diotenez, aski ezagunak dira Maderas Laudio enpresara zihoanean JEZeko andereño batekin trenean izaten zituen eztabaidak.

Frankismo garaian hazi eta hezi zen. Alabaina, 12 urterekin euskara ikastea erabaki zuen, bere kasa. Nola poesian hala antzerkian lan ugari argitaratu zituen. Horien artean ezagunenak *Harri eta herri* (1964), *Euskal harria* (1968), eta *Harrizko herri hau* (1971) dira.

Literaturaren alor guztiak ukitu zituen bere luma zorrotzaz: olerkigintza, eleberrigintza, itzulpengintza eta antzerkigintza. Arestik sortutako olerki ezagunenetako bat *Nire Aitaren etxea* da. Musikagintzan ere, asko dira bere letrak kantu bihurtu zituzten artistak: Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete... *Oskorri* taldearen letra asko ere Arestirenak dira. Horien artean daude *Guretzat, Bizkaiko Aberatsak, Gora ta gora beti*...

Horregatik, kantu afari, antzerki, irakurtaldi eta bestelako ekintzen bidez omenduko dute Aresti jardunaldietan.

KOLABORAZIOA: *Irati Marañon Quintana “Arestiren lupa”*

JENDARTEA: Aiaran XI. mendean jauntxoei euskaraz deitzen zietela aurkitu du dokumentuetan Koldo Ulibarrik. Baita beste hainbat aztarna ere 6 or.

_iritzia

Txema
Urquijo
ABOKATUA

_Balkoitik

Eztabaida oker bat

Historian zehar ziene tziaren edo teknikaren aurrerapen askok polemika sortu dute garapena izaeraz ona edo txarra den definitzeko. Adibide klasiko bat energia nuklearrarena da. Einstein, garapenean kolaboratu zuen bakezalea, gerran zebiltzanen eskuetan geratuz gero ekarri lezakeen arriskuaz jabetu zen. Baina, bestalde, energia nuklearrak eremu askotan aurrerapenak zekartzan; medikuntzan, nekazaritzan eta industria elektrikoan, besteak beste. Polemika mahaigainean zegoen: Energia nuklearra ona ala txarra zen? Gure garaiko beste aurrerapen bat antzerako diskurtsoan erori da: telebista. Gure ezinbesteko kutxa tontoa, informazio tresna gisa kalifikatua izan da. Formazio eta entretenimendurako garrantzia handia eman zaio, eta jendartearen alienazio eta tontotze prozesua ekarri du.

Ezaugarri hauetako azken polemika sare sozialek eragin dute. Aldekoek eta aurkakoek kritika zorrotz amaiezinak egin dituzte komunikatzeko modu berri hauetaz. Ardatza beti berdina da: berezko ontasun edo malizia. Eztabaida hauek beti dira erakargarriak eta sekula ez daude argumentu sendoetatik kanpo. Horrek hausnartzeko ezinbesteko tresna izatera darama. Alabaina, badirudi ez dugula ezer ikasten. Duela askotik konturatu behar ginake gauzak ez direla onak edo txarrak, erabilerak bilakatzen dituela halako. Erabilera hori, lagunok, gizakiaren esku dago, bera baita, azken finean, egiten dituen ekintzengatik -onak ala txarrak izan- epaituko dutena. Ez dezagun gure erantzukizuna saihestu.

Mari Carmen
Ume zaintzailea

Bai. Nik ez dakit euskaraz nahiz eta urte asko eraman hemen. Nik baneki erabiliko nuke. Oso ondo iruditzen zait jendeak hitz egitea.

Ni toki ezberdinetara noanean eta euskaraz hitz egiten didatenean lotsatu egiten naiz ez dakidalako nitaz edo zertaz ari diren hizketan.

Josefa
Etxekoandrea

Nik ez dakit hitz egiten baina ondo iruditzen zait umeek... egitea. Euskaraz dakien jendeak nahiko balu posible luke horrela bizitzea, baina gazteleraz bakarrik dakigunokin erdaraz hitz egin beharko lukete. Bestela, ez gara ulertuko. Niri euskara jakitea gustatuko litzaidake. Baina, jende guztia ahalegindu beharko litzateke eta hori zail da.

?

_GALDERA

Aiaraldean euskaraz bizi daitekeela pentsatzen duzu? Zergatik?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita

BIDEOA WEB-GUNEAN

Paola
Langilea

Pertsona askok ez dakigu euskaraz. Gazteleraz eta euskaraz hitz egin beharko luke jendeak, denok elkar ulertzeko.

Euskaraz hitz eginez ezin gara denok ulertu.

Horregatik, euskaraz bizi ahal izateko udalak ikastaroak doan eskaini beharko lituzke. Eta, jendeak, interesa eta denbora izan behar du horretarako.

Ibai
Nekazaria

Dendetan jendeak ez daki euskaraz.

Gazteak dauden dendetan izan ezik beti dago norbait euskaraz ez dakiena. Kiroldegian, esaterako, ez dago arazorik.

Nire ustez irtenbidea jendeak euskara ikasteko ikastaroak erraztea da.

Tomas
Jubilatua

Lobarekin ikastolatik jaisten naizenean asko entzuten da. Kalean erabilera asko hazi da, %50ak baino gehiago daki.

Bi hizkuntza hitz egiten direnez, euskaraz eta gazteleraz hitz egin behar du jendeak. Ikastetxeetan euskaraz askoz gehiago ematen da euskaraz.

Nagusien artean, baina, nahiz eta sustatu zaila da hedatzea.

TWITTERen

#albisteizanda

@AndimaLandaluze 50 gizon inguru eta emakume bakarra, Saioa Olite, **#Urduñan** lehiatutako Mendi Duatloian **@aiaraldea**

@atxulaur_ke 23an larunbata. MUNGIA B - ATXULAUR K.E. Legarda zelaian Mungia. Bigarren maila. Bigarren multzotik Amaiera: 1-0

@aiaraldea Antonio Lagunari omenaldia egin zion atzo Laudioko Cosecha 48 elkarteak

@aiaraldea Elkarrizketa **@julenlatorre-**ri:"Txikitatik lokatzetan aritzea atsegin izan dut" **@Aiala_S_C**

@aiaraldea Parte hartze handia egon da Aiarako Emakumeen Topaketan

@josubergara Azaroaren 30ean kontzertua Laudioko Keska tabernan **#katiuskagorriak** zuzenean ;)

@topatuinfo Udazkeneko multimedia eskolak abiatu dituzte Aiaraldean **#ume2013**

@HABEMUSPAPAM67
http://habemuspapamamurrio.bandcamp.com/
Gure maketa entzungai eta deskargatzeko!

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

LAGUNTZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA
Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Nerbio Kalea 1, 3. esk. Laudio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

_gutunak

Genero indarkeriaren menpe

Angela Rico (Laudio)

Genero harremanek ez dute gizonen eta emakumeen arteko harremana soilik definitzen; jendarte sistema oso bat baizik. Jendarte sistema edo egitura hau patriarkatuan oinarrituta dagoen heinean, maskulinoa denaren nagusitasunean oinarritzen da. Era honetan generoaren araberako rolak,jokabideak, gustuak, sexu-harremanak eta abar amaigabezin bat sortuz joan da.

Jaiotzen garen momentutik "indar ikusezin" batek iradokitzen digu zer den emakume femeninoa eta gizon maskulinoa izatea. Mezu hauek oso modu sublimean azaleratzen dira eta batzuetan zaila egiten zaigu hauek identifikatzea. 5 urteko neskato batek nekez jakingo du zergatik nahiago duen motxila arrosa eta ez urdina.

Are gehiago, emakume heldu askok ere ez dute jakingo zergatik eta zertarako egon behar duten beti argal, lirain, erakargarri, isilik, irribarretsu, zintzo, gazte eta zuzen.

Horrela apurka-apurka modu inkontzientean eta nahi gabe, pentsatu nahi dut, emakumeok gure alea jarri eta gure kontra jokatzen duen sistema elikatzen goaz. Horrelako jarrerek jada ez naute harritzen, aspaldian ulertu bainuen jendarte -sistema orok, bizirauteko, beharrezkoa duela etengabe legitimatuko duen balio, keinu eta jarrera multzoa, eta emakumeok oso ondo heziak izan gara funtzio hori betetzeko, ezta?

Ez dut gure gain ardura eta zama gehiago jarri nahi, nahikoa dugu tokatu zaigunarekin, baina, neurri batean (ez naiz ausartzen txiki edo handia den esatera), erantzukizuna ere geurea da. Arreta gehiago eskainiko bagenie horrelako jarrerei, anestesia egoera kolektibo honetatik azkarrago iratzarriko ginateke. Egoera aldatzeko ez da beharrezkoa talde feminista baten partaide izatea, edota gaian aditua izatea. Bakoitzak, bere txikitasunetik zein handitasunetik, asko egin dezake. Errealitatea eta zeure buruarekin aurrez aurre jarri eta galdetu, eztabaidatu, hausnartu, alderatu, murtxikatu eta ondoren... auskalo zer topatuko duzun. Hau da nik topatutakoa: emakumeon eskubideak ez dute zertan erlatiboak izan, eta ez lukete egon behar aukera aniztasuna kontuan hartu gabe eraikitako testuinguru baten menpe.

_herriz herri

Laudio

Erabilera anitzeko aretoan hitzaldi ugari antolatzen dira Argazkia: Aiaraldea.com

Herritarren parte hartzearekin egingo dute kultur plana

ERREDAKZIOA I Aitor Martinez Ibarrola

Laudioko kultura sustatzeko saioa izango da kultur plana. Helburuen araberako diseinua izango du. Natxo Urkixo alkatearen esanetan azpiegituren erabilera arrazional bat bilatuko da, bereziki talde kultural desberdinei tresnak eskaintze aldera. Izan ere, planak talde horiek egiten duten lana zabaltzea izango du zeregin berehalakoen artean. Bai eta euren egitekotan laguntzea ere.

Alkatearen iritziz, herrian kulturarekiko pertzepzio negatiboak daude. Laudio eta kultura nahasten direnean eskaintza eskasa da herritarren artean dagoen ustea. Baina Urkixoren esanetan, agenda egon badago eta talde desberdinek euren lokaletan eskaintza zabalak egiten dituzte. Hala ere, kanpotik begiratuta ekintzak soilik taldeen inguruan ibiltzen direnentzat zuzenduak egon daitezkeenaren irudia eman dezakeela onartzen du. Horregatik, hutsune bat dagoela ondorioztatzen da, komunikazioan kasu, eta berau estali nahi du kultur planak.

Ez da, ordea, egun dagoenaren gestio hutsera murriztuko den plana izango. Kultura sustatzeko diru-laguntzak berrindartu nahi dira, eskaintza zabalago bat egite aldera.

Eskaintza aniztasuna

Apustu honek eragin ditzakeen kontraesanen jakitun da Urkixo. Horretarako aurrekariak baditu Laudiok: kiroldegian egin zen Benito Lertxundiren kontzertuak eragin zituen iritzi desberdinak. Alde batetik suposatzen zuen gastua inbertsio kultural moduan ulertzen zutenak zeuden eta bestetik krisi garaietan beharrezkoa ez zen gastua zela uste zutenak. Horri aurre egiteko aukera aniztasuna defendatu du Urkixok, behar eta nahi guztiei erantzuna eman ahal izateko.

Bi fasetako plana

Proiektuak bi fase izango ditu, aldi berean garatuko direnak: diagnosia eta plana.

Horretarako EHUri laguntza eskatu diote. Unibertsitateko ikasleek master lan moduan garatuko dituzte fase biak. Gainera, oinarrizko proiektua talde kulturalei helaraziko zaie, ekarpenak egin ditzaten. Norbanakoek ere izango dute horretarako aukera. Izanere, Udalak plan desberdinak herritarren parte hartze aktiboarekin garatzeko konpromisoa erakutsi du.

Planaren egituraketak ez du epe zehatzik markatuta oraindik. Hala ere, Natxo Urkixori ikasturte amaierarako bukatuta egotea gustatuko litzaioke.

Aurrera begira

Udalak Laudioko kulturan sakontzeko prestutasun osoa erakutsi du. Aurrera begira zer garatuko den galdetuta, "dena" da alkatearen erantzuna. Horren adibide da Udal Lanbide Heziketa Zentroko zinema erreformatzeko egindako hautua.

Urkixoren ustez, herri baten bizitasuna kultura ikuspegitik ere baloratu behar da. Gaur egun, ordea, taberna kopuruaren ikuspegitik larregi baloratzen dela pentsatzen du.

Hori dela eta, herritarrak kultura egitera eta kultur ekintza desberdinetan parte hartzera animatu nahi ditu.

Orozko

Ikatz zakuak neurtzeko harri marka bakarra Orozkon dago

ERREDAKZIOA I Ixone Mendibil

Orozko da Euskal Herrian eta Espainian ikatz zakuak neurtzeko harri marka duen herri bakarra. Hori dela-eta, larunbatean hitzaldi gidatua egin zuten historia ezagutzeko. Ondoren, omenaldi gisa plaka bat jarri zuten.

Sinplea ematen duen arren, gai aberatsa da historiari dagokionez. Izan ere, Orozkoko basoetan ekoizten ziren herriko eta eskualdeko burdinolek behar zituzten ikatz kopuru handiak.

Zakuen neurriak, bestetik, ikazkinen eta olajaunen arteko eztabaidagai ziren; patroiak leku batetik bestera aldatzen zirelako.

Horregatik, azaldu zutenez, Orozkoko "Fiel-Erregidoreak" bere karguari zegokion ardura bat hartu zuen: herriko pisu eta erregulazioa, grabatutako patroi honen bitartez ikatz-salerosketak bermatu ahal izateko. Zakuak neurtzeko joera hau XIX. mendearen hasierakoa da. Harrietako markari dagokionez bere neurriak 63 x 105 cm luze ditu; 3 x 5 arrakoak ziren jatorriz. Arra kanaren laurdena zen. Berau, ohiko luzera-neurria izan zen egungo metroa orokortu zen arte.

Herrian grabatutako irudiaren gainean neurtzen zituzten "marrageroek" hutsik zeuden zakuak, ikazkinei saldu aurretik. "Marrageroak" artile latzaz edo "marragaz" zakuak ehuntzen zituzten artisauak ziren. Zubiaurren bertan zegoen horrelako lantegi bat. Josu San Pedro alkatearen hitzetan, Espainia osoan dagoen neurri bakarra da. Horregatik, poza eta ohorea sentitzen du: "Guretzat inportantea da".

Okondo

Hirigintza plana berritzeko parte hartze prozesua abiatu dute

ERREDAKZIOA I Irati Mendiguren Cosgaya

Okondoko hirigintza plana herritarren parte hartzearekin egiten ari dira. Hala azaldu du Sergio Tato alkateak. Duela urte bat hasi ziren plangintza egiten. Oraingoz, egitasmoa aurkeztu eta azaldu dute. Elkarteekin, herritarrekin, alderdiekin... elkartu dira. Kaltetuekin edo lurren jabeekin ere izan dira, informazioa jasotzeko.

Planak bi fase ditu: hasierakoa, ekarpenena, behin behineko onarpena, alegazioena eta behin-betikoa. Tartean, ordea, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Hirigintza Planaren proposamena onartu beharko lukete.

Besteak beste, eraikin kopurua murriztea dute buruan; "aurreko lege-agintaldian etxebizitza gehiago zeuden aurreikusita. Diseinua mantenduko da, baina kopurua murriztu". Azaldu duenez, herria kohesionatuago biltzea dute helburu: "Bi kale nagusi ditugu Okondon baina ez daude lotuta. Okondok zentro sozial bat behar du. Gure proposamena elizaren eta kultur etxearen ondoan jartzea da, bizitza sozialaren bertan garatzeko". Horren inguruan dendak eta komertzioak jartzea gustatuko litzaieke.

Alkatearen hitzetan parte hartzea edo eskaerak ez dira asko izan. Aurki, ordea, alegazioak aurkezteko epea zabalduko dute. "Talde erredaktoreak azterketa bukatu eta laster aurkeztuko ditu aldaketak". Plana martxan dago, garapena ez. Urte amaierarako lehen fasea amaitzea espero dute; behin-behinean onartzea. Informazio gehiago lortzeko udalera jo daiteke.

Lizentziak
Ibilgailuak
Ziurtagiriak
Dirulaguntzak
Garraioak
Ehiza - Arrantza - Armak
Matrikulazioak - Transferentziak - Bajak
Jaiotzeagatikoak - Azken nahia
Autoenplegua - Lan-agiriak
Txartelak - Bisatuak
ARRATE GESTORIA
Aseguruak - Aurrezki-planak - Finantza-produktuak
Aholkularitza laborala, fiskala eta kontablea
Iturralde 2, 01470 AMURRIO
945 89 02 06
ZERBITZUA EUSKARAZ

Ondasunegi
KOMUNITATEETAKO ERABERRITZE LANETAN ADITUAK
ESPEZIALISTAK GARELAKO DUGU
PREZIORIK ONENA EGIAZTATU EZAZU
94 672 08 32
Karmen 25, 01400 LAUDIO/Araba
info@ondasunegi.com

_herriz herri

Aiaraldea

Egunero auto asko igarotzen dira Amurrio eta Laudio batzen dituen A-625 errepidetik Argazkia: Aitor Burgoa

Azken bost urteetan 12 lagun hil dira A-625 errepidean

ERREDAKZIOA | Aitor Ferandez de Pinedo

Aiaraldeko trafiko ardatz nagusiaren, A-625 errepidearen, egoera aztertzeko bilera egin berri dute Autonomia Erkidegoko eta Arabako Foru Aldundiko trafiko arduradunek azken hilabetean 3 hildako eragin dituzten istripuen harira. Guztira, 2008-2013 artean Laudiotik Urduñarako errepidean 12 lagun hil dira.

2005-2011 aldian, berriz, EAEn bezala istripu kopurua ia erdira jaitsi dela ondorioztatu dute.

Luiaondoko radarra

Neurri gisa, Eusko Jaurlaritzak Luiaondotik Laudiorako norabidean 2011az geroztik erreta egon den radarra berriro martxan jarriko duela adierazi du.

"A-625 errepidean gertatu diren azken istripuak aztertu ondoren, ez dirudi 635,91 kilometro-puntuko radarrak istripuak saihesteko gaitasunik duenik", adierazi dute Segurtasun Saileko arduradunek.

Hartara, "prebentzio eta disuasio neurri gisa" konponketa lehenbailehen bideratuko dela iragarri dute. Neurriaren helburua zuhurtziarik gabeko gidariek errepideko abiadura-muga ez gainditzea da.

Neurri berriak

Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailak istripuak suertatu diren puntuan eragingo duen presazko egitasmoa aurkeztu du. Laudioko saihesbideko tarte bikoiztua igaro ondoren, bi noranzkoko bidean sartzen diren gidariei ohartaraziko dieten argi seinaleak jarriko dituzte, eta istripuak gertatu diren bihurguneko balizak ere indartuko dituzte.

Horrez gain, euria den egunetan 90 kilometro orduko abiadura beharrean 70 kilometro orduko ez gainditzea gomendatuko duten seinaleak ezarriko dituzte eta, Laudiorako norabidean, Luiaondotik errepiderako sarbidetik Gardeako lotunea bitartean, aurreratze maniobra debekatu.

Saratxoko saihesbidea

Inbertsioei dagokienez, 2014 urtean Saratxoko saihesbidea egiteko 20 milioiko inbertsioa abiatuko dela azpimarratu du Alicia Ruiz de Infantek, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak. Azkenik, Laudio eta Markijana bitarteko errepide tartea bikoizteko proiektua idazten hasiko direla iragarri du Aldundiak.

Arabako Kontzejuetako ordezkariak hautatuko dituzte

ERREDAKZIOA | Irati Mendiguren

Arabako Kontzejuetako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak egingo dira abenduaren 1ean.

Eskualdeari dagokionez, Amurrion eta Aiaran egingo dira. Zehazki: Baranbion, Lezaman, Alorian, Artomañan, Delikan, Tertangan eta Saratxon". Aiaran 24 herri dira, baina Menagaraik eta Beotegik administrazio batzar bakarra osatzea erabaki dute. Hots, herri bakarra bailiran aurkeztuko dira.

Finean, bozka bidez herri bakoitzaren ordezkaria nor den aukeratuko dute.

Larruazabal, Bizkaiko bakarra

Bizkaian dauden administrazio batzorde bakarrak Urduña ingurukoak dira, Larruazabalekoa hain zuzen ere; Mendeika, Belandia, Lendoñobeiti eta Lendoñogoiti.

_iruditan

Azaroaren 25ean, emakumearen kontrako indarkeria salatzeko ekimen ugari egin ziren eskualdean zehar. Hitzaldiak, eztabaidak, kontzentrazioak... Era askotako ekitaldiak egin dira, besteak beste, Urduñan, Amurrion, Arakaldon, Orozkon, Laudion, Okondon, Artziniegan eta Aiaran.

Argazki bilduma sarean ikusgai: Aiaraldea.com

Artziniega

"Euskararen egunak" antolatu dituzte asteburu honetarako

ERREDAKZIOA | Uxue Tome

Abenduak 3 Euskararen Eguna dela eta, Artziniegako Udalak hainbat ekintza antolatu ditu azaroaren 29tik abenduaren 3ra arte. Ospakizunak 29an hasiko dira esku-pilota partiduekin, zeinetan Artziniegako pilotari gazteek eta nagusiagoek parte hartuko duten.

Egitarauaren egun indartsuena azaroaren 30a izango da. Egun horretako ekintzetan parte hartuko dutenei baserritarrez janzteko gonbita luzatu diete. Eguna gazteentzako herri-kirolekin hasiko da, Bizindar-en eskutik. Jarraian triki-bertso poteoaz gozatzeko aukera izango dugu tabernaz-taberna Oihane Perea eta Zigor Enbeita bertsolariekin eta Artziniegako trikitilariekin batera.

Arratsaldeko 14:30ean nahi duenak, 8€-ren truke, frontoian egingo den bazkari herrikoian parte hartzeko aukera izango du. Bazkariaren ostean Oskizola Taldearen eskutik dantza-plaza izango dute, euskal dantzak ikasi eta dantzatzeko.

Abenduaren 1ean Potxin eta Patxin pailazoak bertaratuko dira, "Oihan Koloretsua" ikuskizuna eskaini asmoz. Eta jarraian AMPA Barratxiren eskutik "Altxorraren bila" jolasa egingo dute.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduak 3ari, Euskararen Nazioarteko Egunari, Arteko Gure Ama Ikastetxean bertso eta abestiekin emango diote hasiera eta "Hamaika Kantatzeko" ipuin tailerrean parte hartuko dute. Arratsaldean, Museo Etnografikoan hitzaldi proiekzioa egongo da Irati Anda eskalatzailearekin, zeinak bere dokumentala "Ur sakonetako bakardadea" aurkeztuko duen.

Elkarteak eta udala elkarlanean

Agurtzane Llano alkateak Aiaraldea Egunkariari adierazi dioenez, "Euskararen egunak" antolatzeko aurrekontua 2.300 eurokoa izan da.

Egitasmoa aurrera eramateko herriko elkarteekin elkarlana bultzatu dute. Besteak beste, Pelotazale Elkartea, Bizindar Sokatira taldea, herriko trikitilariak, Otsati Elkartea, Barratxi Guraso Elkartea, AETko Gure Ama eskola, Artziniegako museoa eta Ganzorrotz elkartea aritu dira prestaketa lanetan.

_herriz herri

Amurrio

Gaur egungo Amurrioko anbulatorioa Argazkia: Mario Corral

Anbulatorio berria egiteko asmoa du Eusko Jaurlaritzak

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa Aranoa

Eusko Jaurlaritzak 2014 urterako aurkeztu duen aurrekontuak onartzen badira, Amurrion osasun etxe berri bat eraikiko dute.

Bertan jasotzen denaren arabera, osasun zentroak 330.000 euro jasoko lituzke eta finantzaketa eta egite lanak Gobernuaren esku egongo lirateke.

Egitasmoa ez da berria, 2012. urteaz geroztik anbulatorio berri bat egiteko proiektua baizegoen. Alabaina, aspaldiko kexa izan arren ez da aurrera eraman.

Eusko Jaurlaritzak urte amaieran onartuko ditu 2014ko aurrekontuak. Osasun etxea egitekoen barnean dago, baina Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzari dagokio beronen kudeaketa.

Josune Irabien Amurrioko alkateak Aiaraldea Egunkariari adierazi dionez, Eusko Jaurlaritzak Udalarekin hainbat bilera izan eta osasun zentroa bisitatu ostean erabaki dute berri bat egitea .

Alkatearen arabera, nahiz eta proiektua aurrekontuak onartzeko esperoan egon bere finantziazioa eta egite lanak Eusko Jaurlaritzaren esku daude.

Hala, Udalak lursailen bilaketa eta dagozkion izapideak besterik ez lituzke beteko.

Amurrioko alkatearen hitzetan "osasun zentroaren hasierako izapideak aurrekontuak onartu eta gutxira hasiko lirateke". Oraindik ez dutenez proiektua garatuko duten edo ez baieztatu, ordea, ez dute obrak egin bitartean behin-behineko espazio moldaketarik planteatu.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ez du zehazki osasun zentro berriaren kokalekua aipatzen, baina bai erdialdean egongo dela egungoa urrun dagoela uste delako.

Egungo anbulatorioa

Egungo anbulatorioa 1976. urtekoa da eta orain dela urte batzuk, eskaera handia zela ikusirik, atzealdean aurrefabrikatutako bi modulu itsatsi ziren. Baita oihal batek estaltzen zituen itoginak konpondu ere.

Irabienek eraikuntzaren gabeziak nabarmenak direla aitortzen du. Izan ere .espazio falta dago: "Pediatrian edota erditze aurreko prestakuntzarako geletan adibidez".

Egun 10.000 pertsona baino gehiagoren arretarako sei mediku daude.

Zerga batzuk igo eta beste batzuk izoztu egin dituzte Argazkia: Mario Corral

Herritarrek ordaindu beharreko zergetan aldaketak egin ditu udalak

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa Aranoa

Azaroaren 19an udaletxean egindako osoko bilkuran Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga edota Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren Gaineko Zerga izoztea erabaki zuten alderdiek.

Motordun ibilgailuek edota tabernek terrazak jartzeko ordaindu behar duten diru kopurua % 2 igoko da.

Alderdiek adostuta, baratzeen eta bazkalekuen ustiatzeen, eta telefono eta zerbitzu elektrikoen igarobideen gaineko zergak ere izoztuko dituztela erabaki zuten osoko bilkuran. Bestalde, Motordun Ibilgailuen Gaineko Zerga ez ezik, ostiraletan egiten den merkatuan jartzen diren saltokiena, tabernetan jartzen diren terraza eta mahaiena, edota garaje eta lursailetako pasabideena ere %2 igoko ditu Udalak, besteak beste.

2014. urteko zaborren bilketa eta ur zerbitzuaren gaineko tasak aztertzeko esperoen daude oraindik.

Josune Irabien alkateak adierazi duenez hurrengo urteko aurrekontuen kudeaketan ahalegin berezia egingo dute familien egoera ekonomikoa ahalik eta gutxien kaltetzeko.

Saratxo

Bi asteburu iraungo dute aurtengo Saratxoko jaiek

ERREDAKZIOA I Eunate Molinuevo

Azaroaren 29an, ostirala, mustxapelketa jokatuko da herriko eskolan 18:30ean. Gehienez 32 bikotek parte hartu ahal izango dute eta bikoteko 20 € ordaindu beharko dira.

23:30etatik aurrera Born#1 eta Five Corners taldeek kontzertua eskainiko dute.

Aurreko urteetan lez, bertara joateko garraioa musu-truk izango da: 23:30ean Amurrioko gasolindegian eta 23:45ean Urduñako suhiltzaileetan. Buelta 4:30ean izango da. Bestalde, abenduaren 1ean, igandea, XI. mendi-ibilaldia hasiko da goizeko 8:30ean.

Bigarren asteburuari dagokionez, abenduaren 6an meza nagusia egongo da 12:00etan Bariko San Nikolasen omenez eta ondoren, Laudioko Santa Luzia abesbatzak kantaldia eskainiko du. Horrez gain, arratsaldeko 18:00etan haurrentzako jolasak egongo dira.

Hurrengo egunean herri-bazkaria egongo da 14:00etan eta arratsaldeko 20:00etan erromeria Idoie ta Aketza trikitixa eta pandero bikotearekin. Azkenik, igandean

Aiaraldea

24 urte espetxean egon ondoren aske dira Jose Anjel Biguri, Manu Gonzalez eta Santos Berganza

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Estrasburgoko auzitegiak 197/2006 doktrina baliogabetu ondoren, aske dira dagoeneko Manu Gonzalez (Laudio), Santos Berganza (Amurrio) eta Jose Anjel Biguri (Menagarai). Manu Gonzalez pasa den asteazkenean atera zen Sevillako espetxetik. Auzitegi Nazionalak Santos Berganza eta Jose Angel Biguriren kasuak aztertu zituen asteartean eta biak askatzeko erabakia hartu zuen.

Santosek egun berean utzi zuen Alacanteko kartzela. Gauean heldu zen Amurriora. Jose Angel Biguri, ordea, asteazkenean atera zen, aske uzteko paper bat falta zitzaiela argudiatuta.

Hirurek 24 urte eman dituzte espetxean, ETAkide izatea leporatuta. Jose Anjel Bigurik azken bi urteak Donostiako Martuteneko kartzelan eman ditu gaixotasun larri bat medio.

Irailaren 24an Urduñatik Laudiora elkartasun martxa egin zuten Julen Fernandez, Jose Anjel Biguri, Santos Berganza eta Manu Gonzalez 24 urte izan dituztela kartzelan salatzeko. Fernandez preso dago.

_sozioekonomia

Itziar
Larrazabal
ELA sindikatua

_Argia

Tubacex eta lehiakortasuna

Azken asteotan, Tubacex enpresa dela medio, buruan ideia bat sartu nahi izan digute: Euskal Herriko enpresak lehiakorrak ez direla soldata altuegiak ditugulako.

Baina enpresa zuzendaritzak eta ideia neoliberalen koru mediatikoek zenbait datu isilean gorde dituzte.

Langile bakoitzeko lehiakortasuna urtero aurreko urtekoa baino handiagoa da. Horri esker 2012ko irabazi garbiak aurreko urtekoak baino %224 gehiago izan dira.

Horri esker ere enpresa honetako zuzendaritzaren 2012ko soldata igoera %13 izan zen eta administrazio kontseiluak 781.000 € jaso zituen, aurreko urtean baino %91 gehiago.

Soldata baxuagoak lanpostu sorrera gehiago ekarriko luke?

Europa mailan soldata altuenak dituzten herrialdeak langabezi tasa baxuenak dituzte eta hegoaldeko herrialdeetan (Portugal, Grezia eta Espainia), sodata baxuagoak eta lanaldi luzeenekin, langabezi tasa altuenak.

2011ko Eurostateko soldaten kostuen datuak hartzen baditugu, Norvegia da zerrendan lehenengoa eta langile eta ordu bakoitzeko 44€ ordaintzen du. Zerrendan azkena Bulgaria da, berriz, eta langile eta ordu bakoitzeko 3,5 € ordaintzen du.

Esaten digutenari kasu egingo bagenio Bulgaria izango litzateke lehiakortasunaren eredu eta Norvegia lehiakortasun faltaren mukurua.

BIDEO ALBISTEA:
Norten enpresako langileek greba mugagabea hasi dute.

Ikusi bideo elkarrizketa gure web orrian.

Tubos Reunidosen 4,4 miloi euroko irabaziak izan ditu, nahiz eta %77 jaitsi

ERREDAKZIOA

Urtarriletik irailera Tubos Reunidos enpresak izandako irabaziak 4,4 miloi euro izan dira; iaz baino %77 gutxiago.

Bigarren hiruhilekoan 1,2 milioi eskuratu zituzten, 2012an epealdi berean baino %73 gutxiago.

Enpresaren komunikazio sailaren arabera, dolarrak indarra galdu izana da arrazoietako bat. Baita atzerriko azpiegitura energetikoak garatzeko esleipenak atzeratu egin direla ere. Horien artean dago Afrika iparraldeko eskaera. Europa eta Ipar Amerikako merkatuko eskaerak murriztu egin dira, azaldu dutenez. Hala ere, enpresaren aurreikuspenek hoberako bilakaera espero dutela argitu dute; "emaitzak hobera joango dira".

Lan gatazkak eta langileen soldata altuak direla eta joan da Tubacex Kantabriara

Amurrioko Tubacex lantegia Argazkia: Mario Corral

ERREDAKZIOA I **Txabi Alvarado Bañares**

Alvaro Videgain Tubacex enpresako zuzendariak hedabideen aurrean azaldu zuen zergatik irekiko duten Kantabrian lantegi berria. Erabaki hori EAEko lan kostuak "handiegiak" direlaren baieztapenarekin lotu zuen zuzendariak. Horregatik, langileen soldatak "malgutu" behar direla esan zuen hilaren hasieran, Austrian eta Estatu Batuetan askoz gutxiago ordaintzen baitiete langileei. Horren guztiaren ardura lan ereduari leporatu dio Tubacexek eta bereziki aipatu du sindikatuen jarduera. Enpresaren zuzendariaren ustez lan gatazka gutxiago behar dira, sindikatuek politizatzen baitituzte. Erkidegoak zerga gutxiago ere ezarri beharko lituzkeela aipatu zuen enpresariak.

Guztira 411,97 milioi eurotan baloratutako salmentak egin ditu Tubacexek urteko lehen bederatzi hilabeteetan, enpresak kaleratutako datuen arabera. 11,85 milioi euroko irabazi garbiak lortu ditu horrela.

	2012	2011	2010	2009
Etekinak	11,86	-6.55	-25,78	37,58
Salmentak	532,42	486.6	371,47	671,8
Inbertsioak	33,5	20,99	52,3	19,47
Langile Kopurua	1852	1723	1789	1970

Emaitzak miloi euroka idatzita daude.Iturria: Tubacex

Enpresaren zuzendaritzak EAEko lan gastuak "handiegiak" direla argudiatuta erabaki du proiektu berria Kantabrian garatzea

Zuzendaritza goreneko kideek %12 igo zuten iaz euren soldata. Hala, kide bakoitza 225.500 euro jasotzera iristen da urtero. Hau da, enpresako pertsonalaren %0,75a izanik, lan kostuaren %4,55 hartzen dute.

"Lantegia Kantabriara eramatea ez da erabaki estrategikoa, politikoa baizik". Hala uste du Aiaraldeko LABek. Sindikatuko kideek ez dute begi onez ikusten "inbertsioak eskualdetik eta erkidegotik kanporatzea", eta "patronalaren bozeramaile papera" hartu izana egotzi diote Videgaini. ELAk, aldiz, lan kostu altuak dituzten Europako herrialdeetan langabezi gutxiago dagoela argudiatu du, Tubacex irabazi handiak dituela gaineratzearekin batera.

Laudioko udal-gobernuak, bere aldetik, erabakiaren berri Kantabriako komunikabide baten bidez jaso zuela salatu zuen, Arabako Diputazioak "hilabete batzuetako aurrerapenarekin" jakin zuen bitartean.

Erabakiaren berri izan bezain laster, Amurrio, Artziniega eta Laudioko udalek premiazko bilera bat egiteko eskatu zioten enpresako zuzendaritzari, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Aiaraldea.com-ek ere ahaleginak egin ditu enpresaren iritzia jasotzeko baina momentua aproposa ez delakoan uko egin dio hitz egiteari. Hala ere, azaroaren hasieran Videgainek azpimarratu zuen Aiaraldean dauden lantegietan apustua egiten jarraitzen duela. Azken urtetan egindako inbertsioak horren adierazle dira. 2010ean, adibidez, laminazio-hotz bidez tutuak eraikitzeko sistema jarri zuen Amurrion.

Marina de Cudeyoko (Kantabria) lantegi berria 2014rako irekitzea dago aurreikusia, eta filialaren akzioen %19a Kantabriako Sodercam sozietate publikoak erosiko lituzke.

_jendartea

Koldo Ulibarri

"Lekukotasun eta behargin falta dira hemengo euskara ikertzeko arazorik handiena"

KOLDO ULIBARRI eskualdeko euskararen historia ikertzen ari da. Aiaran XI. mendean jauntxoei euskaraz deitzen zietela aurkitu du dokumentuetan. Baita Urduña, Orozko, Laudio, Aiara eta Artziniegako hainbat aztarna ere.

Koldo Ulibarri historialaria eskualdeko euskararen jatorria ikertzen ari da Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Koldo Ulibarrik (Urduña, 1985) Francisco Mendietaren inguruko hitzaldia emango du ostiralean Bilbon. Aiaraldeko euskarari buruzko tesia egiten ari da.

Zein ekarpen egin zion Francisco Mendietak euskarari?

Bilbon hezitako margolaria zen, baina berez Menagaraikoa zen. Bi historia liburu idatzi zituen. *Anales de Vizcaya* liburuan euskal kantu zahar bat jaso zuen Abendañoren hilketa kontatzen duena. Garaian ohikoa zenez, hainbat etimologia ematen ditu: abizenak, euskararen perfekzioa frogatzeko hitzak...

Eskualdeko euskararen inguruan zer esan liteke?

Zaila da, ez dakigu ziur Mendietak bertako ala Bilboko hizkera egiten zuen. Baina berez, 1590-1610 inguruan Menagarain euskaraz egiten zuen artista bat egoteak asko esan nahi du. Euskararen lekukotasun oso zaharra da.

Gutxi izan arren interesgarria da geroagoko aldaerak dakartzalako eta ohi ez bezala ez delako elizgizona.

Euskaraz dauden material gehienak doktrinak dira, elizarekin lotuak. Hortik kanpoko lexikoa topatzeko aukera gutxi daude. Doktrina batean ez dago haritza nola esaten zen ikusteko aukerarik, baina Mendietak ekartzen du.

Aiaraldeko euskararen tesia egiten hasi zinen. Zertan dago?

Apurka-apurka badoa. Arazoa da ditugun testuak ez direla behar bezala aztertuak. Gehienak eskuizkribuak dira. Horregatik egin behar den lehen gauza ondo irakurtzea da, eta horrek bere lana ekartzen du. Horren ostean letorke deskribapena edo benetako ezaugarriak ateratzea.

Tesiari dagokionez jada gorputza hartzen ari da. Testu bakarrean oinarritzen nago, XVIII. mendeko sermoitegi batean . Hori hemengo euskara dela frogatzen ari naiz. Hizkeraren deskribapena eta dagozkion eremuak identifikatzen. Oraingo datuen arabera Laudioko eta Orozkoko ezaugarriak biltzen ditu. Eta, bi herri horietan galdutakoak.

Adibiderik jartzerik?

Egun, Bizkai osotik Orozkon bakarrik gordetzen da euskara batuan "zeruan" dena, Bizkaiko leku askotan "zeruen" esaten da; Orozkon "zeruin" ahoskatzen da. Galdutako ezaugarrien artean dago Laudioko doktrinetan dagoen "amaituiten" aditz-marka berezia. Amaitzen eta antzeko aditzak esateko sermoitegian ageri dira. Inguruko aditz marka asko gaur egun galdu egin dira.

> "XIV. mendeko liburu batean XI.mendean Aiarako euskaldunek Don Vela jauntxoari Jaun Belako deitzen ziotela ageri da"

> "Orozko eta Laudioko aditz marka asko gaur egun galdu egin dira. Orozkoko hizkera oso berezia da. Baranbiok ere euskalkia zuen"

Zelako ezaugarriak ditu, tokian toki, Aiaraldeko euskarak?

Testu gutxi dira inolako ondorio orokorrik ateratzeko. Orozkoko hizkera oso berezia da. Egiteko azterketa asko falta dira. Baranbiok ere euskalkia zuen, Orozkokoaren berdintsua.

Toponimietan bada une bat Orozko eta Baranbion goiti eta beiti direnak Aiaraldeko beste eremuetan "gotxi" eta "betxi" gisa aurkitzen direnak. Horrek eskualdean harremanak zeudela erakusten du. Hala ere, lekukotasun eta bereziki behargin falta dira hemengo euskara ikertzeko arazorik handiena.

Antzina sermoiak ez zituen abadeak bakarrik egiten, profesional batzuk zeuden. Horiek XIX. mendekoak dira, 60 urtetik gorakoek ezagutuko zituzten holako misioak. Misiolari euskaldunak eskatzen zituzten herrien zerrendan Urduña ageri da.

Euskarazko lehen hitzak eskualdean noiz eta non agertu ziren?

Ustez, euskalduna den erromatar garaiko jainko izen bat Artziniegako herrixka den Gordeliz-en agertu zen altare batean. Altare hori, ordea, galdu egin da. Norbaitek egin zuen marrazki baten bidez ezagutzen da, baina horren inguruko hipotesi asko daude.

Nik ezagutzen ditudan lehenengo euskal hitzak Aiarako Jauntxoen Genealogia liburuan ageri dira. Liburua XIV.mendekoa da, baina kontatzen duen historia XI. mendekoa. Bertan, Aiarako jendeak erdaldunek jauntxo bati "don vela" deitzen ziotela diote; eta euskaldunek "Jaun Belako".

Euskaldunen historia norbaitek ikertu du hemendik?

Natxo Urkixok Laudioko euskararen inguruko liburu bat egin zuen,. Toponimia Felix Mugurutzak landu du, eta Federico Barrenengoak ere. Honek Baranbioko azken euskaldunak elkarrizketatzea lortu zuen.

Noiz egongo da lana ikusgai?

Tesia 2014an bukatzea gustatuko litzaidake.

Horretarako pausuak ematen ari gara. Euskaraz hitz egiten zela jakitea interesgarria bada ere, ez dugu ahaztu behar oraindik guk ere egin dezakegula, hori da garrantzitsuena.

Asier
Amondo Gorostizaga
AEK

_Hankamotz

Euskararen eguna(k)

Datorren abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu EAEn. Nik dakidala, bertoko instituzioek, ez Nafarroan ez eta Iparraldean ez baitiote egun honi inolako garrantzirik emango.

Batean Euskara ofizialki existitu ere ez delako egiten eta bestean bertoko gobernua delako ofizialki onarturik duen hizkuntzaren etsairik handiena.

Batzuok ospatu egingo dugu, baina ospatuko dugu era berezian, oraindik ere gauza asko egiteke daudela aldarrikatzeko.

Aldarrikatuko dugu Euskarak Iparraldean eta Nafarroan zelan egoera tamalgarrian biziarazten duten. Aldarrikatuko dugu EAEn oraindik ere gauza asko egiteke daudela; biztanleriaren % handi batek ez du euskara ezagutzen, ofiziala den hizkuntza ikasteagatik jendeak ordaindu egin behar du. Oraindik lana badugu.

AEKn ari garenok, lan handia dugula jakinda ere, euskararen egun asko ditugu ezagutza, erabilera, normalkuntza eta sustapenean ari garelako.

Euskararen egun hauek, guztiek, guztion elkarlana behar dute, jendartean gauden eragile guztiok euskararen erabilera helburu jarri behar dugu.

Ezagutzetik erabiltzera egin dezagun salto eta espazioak irabaz ditzagun erabiltzetik normalizatzera pasa gaitezen. Era horretan euskararen egunak denak izango dira eta denak izango diren neurrian izango dugu zer ospatu abenduaren 3an.

_erreportajea

Gabriel Aresti: “Laudio, bat da eta lau dio”

Gabriel Arestiren jaiotzaren 80. urtemuga dela-eta, haren omenezko egunak antolatu dituzte Laudion. Izan ere, Aiaraldearekin harreman handia izan zuen. Horren adibide da eskualdeko herri asko aipatzea poema ezberdinetan.

ERREDAKZIOA I I Edorta Moreno Martin I Izar Mendiguren Cosgaya

Gabriel Arestik lan oso ezagunak utzi zituen, besteak beste, euskal poesian, kantagintzan eta nobelagintzan .

Handia da Gabriel Aresti (Bilbo, 1933-1975) poeta ezagunak Aiaraldearekin izandako harremana. Horren adibide da beraren hainbat idazkitan eskualdeko herriak eta bizimodua deskribatzea. Arestiren jaiotzaren 80.urtemuga dela-eta, Laudioko udalak “Gabriel Arestiren omenezko egunak” antolatu ditu Laudion.

Gabriel Aresti 1933an jaio zen Bilbon. 12 urte eskas[1] zituela hasi zen euskara ikasten, bere kasa. Diotenez, sarri joaten zen Begoñara bertako fraileekin euskaraz eta euskararen inguruan hitz egitera. Erdaraz hazi eta hezi zen baina Francoren garaian euskara ikasteko zeuden zailtasunak gaindituz bere burua euskalduntzea lortu zuen.

1953an bukatu zituen merkataritzako perito izateko ikasketak. Lehen poemak 21 urterekin idatzi zituen. Aurreneko artikuluak 1954ean argitaratu zituen; lapurteraz.

Nola poesian hala antzerkian lan ugari argitaratu zituen. Horien artean ezagunenak *Harri eta herri (*1964), *Euskal harria* (1968), eta *Harrizko herri hau* (1971) dira. Aresti sortutako olerki ezagunenetako bat *Nire Aitaren etxea* da.

Literaturarenalor[2] guztiak ukitu zituen bere luma zorrotzaz: olerkigintza, eleberrigintza, itzulpengintza eta antzerkigintza.

1957an Euskaltzaindian sartu zen; urgazle[3] izendatu zuten. Hala, Txillardegi, Villasante edota Koldo Mitxelena bezalako idazleekin batera euskara batuaren sorrerarako bidea ireki zuen.

Egan, Zeruko Argia... aldizkarietan kolaborazioak egiten zituen. Musikagintzan ere, asko dira bere letrak kantu bihurtu zituzten artistak: Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete... *Oskorri* taldearen letra asko ere Arestirenak dira. Horien artean daude *Guretzat, Bizkaiko Aberatsak, Gora ta gora beti*...

Ogibidez[4], kontularia zen. Berez, Espainiako kolonia zen Ginea Ekuatoriarreko egur tropikala inportatzen zuen enpresa batean egin zuen lan.

Horregatik izan zuen harremana, besteak beste, Eibar, Barakaldo edo Laudio bezalako herriekin.

Xabi Monasterioren iritzi oso garrantzitsua izan Laudio harentzat: “Aresti aurrerakoia zen, zapaltzaileen kontrakoa eta zapalduen aldekoa, eta beraz, langileen aldekoa. Nolabait berak defendatzen eta maite zituenak hantxe ikusten zituen. Haiek defenditu behar zituen eta bere olerkien protagonista bihurtu behar zituen”.

Aresti eta Aiaraldea

Zura[5] lantzen zuten enpresetaraia egunero egiten zuen joan-etorria. JEZ enpresak martxan jarria zuen ikastola, 1968an sortua. Diotenez, ikastola hartako andereñoa eta Aresti egunero joaten ziren Biilbotik Laudiora trenean, eta ez ziren eskasak izaten euren arteko eztabaidak.

Bidaiak gora-behera, hori dela eta, ugariak dira Aiarako lurrari bere lanetan egindako erreferentziak; “Laudio bat da eta lau dio” esaldi ezaguna, besteak beste.

Harrizko herri hau lanean Euskal Herriko 17 herri aukeratu zituen errefrauak[6] osatzeko. Tartean, eskualdeko bi: “Zuberoa, Lapurdi hotza eta zu beroa, Aiala, zeruak gorde aiala (...) Laudio, bat da eta lau dio”.

Hala ere, eskualdeari aipamen nabariena *Harri eta Herri* laneko *Aialako konterria* olerkian egin zuen, 1964an. Garai hartan Aiaraldea nolakoa zen azaltzen du bertan. Olerkiaren baitan eskualdeko 24 toki aipatzen ditu: Altube, Okondo, Aiara, Laudio, Urduña, Lezama, Amurrio, Baranbio , Tertanga, Soxo, Soxoguti, Arespalditza Luiaondo, Artziniega, Erretes, Areta, Aginaga, Arrastaria, Lanteno, Luxu ,Beotegi, Larrinbe, Delika eta Orozko. *Munduaren neurria* izenekoan, aldiz, Laudioko elizari keinu egiten dio: “(...) Nork bere begiekin ikusten ditu gauzak. Eta nork diost niri laudioko kanpandorreak eztakusala? Nork?(...)”.

Egur tropikala saltzen zuen enpresa bat medio, Aiaraldearekin harreman handia izan zuen Arestik. Horren adibide da Aialako Konterria olerkian eskualdeko 24 toki aipatzea.

“Harrizko herri hau” lanean Aiara eta Laudiori buruz idatzi zuen: “Aiala, zeruak gorde aiala; Laudio, bat da eta lau dio”

Sari zaparrada

Egindako lanengatik sari ugari jaso zituen Arestik. 1962an, esaterako, Orixe saria lortu zuen *Harri eta Herri* lanarekin. Urte bat beranduago, 1963an, Loramendi saria eskuratu zuen argitalpen berdinarekin. Bi horiek ez ziren izan, ordea, eskuratutako bakarrak. Izan ere, 1968an Jose Maria Iparragirre saria ere jaso zuen ere bai. 1965ean, berriz, Lizardi saria jaso zuen *Mundu Mundua* eleberrirekin.

Hiztegia: *Eskos[1], apenas / Alor[2], eremu / Urgazle[3], euskaltzainberezia/Ogibidez[4], lanbidez/ Zura[5], egurra / Errefrauak[6], esamoldeak.*

+info: web; *Arestik Laudio aipatzen dituen olerki guztiak*

GABRIEL ARESTIREN OMENEZKO JARDUNALDIEN EGITARAUA

AZAROAK 28

11.28. OSTEGUNA. 18:30ean
“Gabriel Arestiri gorazarre” hitzaldi didaktikoa

HIZLARIA: Xabier Monasterio
TOKIA: Herriko plazako hitzaldi aretoan

AZAROAK 29

11.29. OSTIRALA. 20:30ean
Kantu kalejira

PROTAGONISTAK: Duo Deno
TOKIA: Herrigunetik

11.29. OSTIRALA. 21:30ean
Kantu afaria

PROTAGONISTAK: Duo Deno
TOKIA: Basalarrina (10€)

AZAROAK 30

11.30. LARUNBATA. 19:00etan
Omenaldia
TOKIA: Udaletxean

11.30. LARUNBATA. 20:30ean
“Gabrielen lekua” ikuskizuna

PROTAGONISTAK: Oier Gillan, Andoni Egaña, Rafa Rueda eta Alain Urrutia.

TOKIA: Aldai plaza

ABENDUAK 2

12.02.ASTELEHENA. 18:30ean
“Diot” dokumentala (Gabriel Aresti) eta mahai ingurua
TOKIA: Kultur etxeko 3.gela

ABENDUAK 3

12.03.ASTEARTEA. 12:00etan
Udalaren adierazpen instituzionala
TOKIA: udaletxea

12.03.ASTEARTEA. 12:00etan
Gabriel Arestiren irakurketa kolektiboa
TOKIA: Herriko plaza

+ info: irratia; *Gabriel Arestik 80 urte, Klioren Basoa irratsaioa*

Aialako konterria

jeografiaki bizkai eta gaztelaren artean eta historiaki feudalismo eta sozialismo artean lekutua



Kantabriako itsasora
zoazten
urak,
Altube, Okendo
Alalako lurra,
behin euskalduna,
Urkabustaizetik Laudiora,
garbi ezazue,
Orduña ere,
Genikari lotua,
garbi ezazue
Bizkai Gaztelatik
gordtzen
duen
lurra,
Lezama, Amurrio, Baranbio,
Tertanga
Sojo, Sojoguti
Errespalditza, Luiaondo,
Artziniega, Erretes biak,
Dubiris, Areta, Aginaga,
ezer
ez den
lurra, gizon gaiztoa,
hemen ez da entzuten
zozoen kantarik,
hemen entzuten da
gizonen biroa,
arnegua,
hemen,
konterri honetan,
Aialako lurrean,
Arrastaria, Izarra, Gordeliz,
Lanteno
Lujo, Beotegi,
Larrinbe, Delika,
gizonak hiltzen eta lapurtzen
du,
mesedez,
ur lasterrak,
lehen garbiak,
orain zikinak
eraman ezazue itsasora
lur honetan gizon urrikariak
egiten duen hainbeste
gaiztakeria...

Konterri honetan
gizonak
asko sufritzen du,
lanean ri da
gogorrik,
apenas etzaten da
andrearekin,
erregular irabazten du
dirua
fabrikan eta gero
soloan makurturik,
prestuki bizi da
hogei urtean,
eta azkenean
aire gaizto batek jotzen dio
burua eta
aita zaharra edo alaba gaztea
hiltzen du
merke,
hain luzaro
garesti ondoren.
Hauek dira hitzak,
lurrari esaten dizkiodanak,
lurrean bizi baita gizona,
eta ur lasterrek ez bainaute
obeditzen,
Altube,
Okendo,
Nerbion,
gizonaren gaizki egina
ez duzue erredimitzen,
erremediatzen.
Aialako lurra,
ez zara zu Bizkaia, ez zara zu
Gaztela,
kopetako izerdiarekin
mantendu
lepoan Orozko,
sabelean Losa,
zure buruaren gainean
dago
Bilbao,
Bizkaiko itsasora hurbil dago,
Aialako lurra,
lur odoldua,
Luiando,
Laudio,
lezama,
jeografia tikia,
historia luzea,
askotan
ikusi dut
hemen,
elizatik etsera,
fabrikatik solora,
tabernatik kalera,
Aialako
gizon gaiztoa,
azkenean Jainkoak
barkatuko
duena...

_Arestiren lupa

Irati Marañon
LITERATUR ZALEA

Egin dezagun atzera berrogeita hamar urte. Bilbo fabrikaz josita dago, kutsatuta, zikin, eta hango kaleetan, hain zuzen, aurkituko du inspirazioa Gabriel Arestik. Nork eta euskaldun berri komunista batek emango dio hauspoa euskal poesiari. Are gehiago, Koldo Izagirrek dioen moduan “ (...) euskaltasunaren mapan kokatzen du Bilbo, gainazpikatu egiten du tradizio unamunianoa: bera bezain bilbotar eta bera baino erdaldunagoa zen idazleak ekarri zuen euskara hiletatik bizira”.

1960ko hamarkadan gaude, frankismo bete-betean. Zapalkuntza handiko garaia da: langile grebak nonahi, geldialdiak Asturiasko meatzari grebalariekiko elkartasunez, salbuespen egoera Bizkaian eta Gipuzkoan, hainbat atxilotu eta torturatu... Hala ere, mugimendu handia antolatzen ari da politikan (herri- eta auzo-elkarteak, sindikatuak...) eta kulturan: ikastolak, gau-eskolak, aldizkariak...

Halaber, euskaltasuna eta abertzaletasuna bizitzeko eta ulertzeko beste eredu bat sortzen ari da: eredu bukoliko, tradizionalista, fededun eta baserritarraren ordez, orduko euskaltasunak beste oinarri batzuk izango ditu, eta beste gune bat: hiria. Aldaketa-giro horretan funtsezkoa izango da, beraz, Gabriel Aresti eta ezinbestekoa Harri eta Herri (1964). Gerraosteko egoera negargarrian, Aresti izan zen euskal literatura biziberritu zuen eragile nagusienetako bat.

“Esanen dute
hau
poesia
eztela,
baina nik
esanen diet
poesia
mailu bat
dela.”

Poesia tresna da Arestirentzat, masak hezteko baliabide didaktikoa, iraultzarako deia. “Arestik mailua hartu zuen eskuan harria moldatzeko, herria iratzartzeko”, dio Izagirrek. Haren osmoa ahalik eta herritar gehiagorengana iristea zen, eta horregatik erabili zuen hizkera argia, ulergarria eta zuzena. Euskal literatura herri xeheari begira jartzea; literatura herriaren ahora eramatea eta euskara euskaldun xeheenen gogoetan txertatzea, horra hor Arestiren helburuak.

Poesia sozialaren bidetik, bada, euskal poesia modernoaren habeak jarri zituen Harri eta Herri lanak. Gai berriak jorratu zituen: hiriko giroa, langileen arazoak, zapalduen bazterketa... eta estiloa ere apurtzailea da, molde librea txertatu eta estroforekiko morrontza apurtu zuelako.

_kultura

Txani Rodrigez

"Idazlea izatea ez da zaila, literaturatik bizitzea bai. Ezinezkoa da"

TXANI RODRIGEZek "*Artzaina izan nahi dut, eta zer?*" ipuina plazaratu du Elkar argitaletxearekin. Haurren askatasuna defendatzen du. Eta, baserriko bizimodua aldarrikatu. Sormena ez dagoela krisian dio.

Txani Rodrigez "Agosto" eleberriaren aurkezpenean Argazkia: Gaizka Bilbao

ERREDAKZIOA | Iera Garaio Ibarrondo

Txani Rodrigez (Laudio, 1977) kazetaria eta idazlea da. Liburu berri bat plazaratu du Elkar argitaletxearekin. Ekainean "*Agosto*" eleberria kaleratu zuen.

Umeentzat liburua argitaratu duzu. Zertan oinarritzen da?

"*Artzaina izan nahi dut, eta zer?*" izena du eta azaroaren 5ean aurkeztu genuen Donostian. Jokin Mitxelena marrazkilariarekin egin dut. Liburu honetan garrantzi handia du, bere lana ezinbestekoa delako.

8 urtetik gorako haurrei zuzendua dago. Ilustrazio nahiko ditu. Ez da luzea, umeentzat denez arin irakurtzen da.

Istorioak zer kontatzen du?

Ettore izena du protagonista nagusiak. Izen italiarra da. Ettoreren amari asko gustatzen zitzaion aste santuan Erromara joatea. Baina behin, bero asko zegoela-eta, oporrak igarotzera Gorbeiako landetxe batera joatea erabaki zuten. Ettore Bilboko Isosaki dorreetan bizi da, alemaniera ikasten du, padelera jolastu, pianoa jo... Goi mailako haur bilbotarra da.

Ikastetxera doanean ardiak ikusten ditu leihotik eta asko gustatzen zaizkio. Landetxean artzain bat ezagutzen du, eta artzaina izatea erabakitzen du. Gurasoek ez dute ideia ondo hartzen, nahiz eta ama oso ekologista izan. Landetxean, ordea, ama ez da ortutik azaltzen, aspertu eta semearekin haserretzen da, artzaina izan nahi duelako.

Umeak artzaina izateko ikasketarik ez duela behar uste du, baina artzainak ikasten jarraitzeko konbentzituko du: abereen baimenak, kontuak... egiteko ikasi behar da eta.

Benetako istorioa da?

Ez, asmatua.

Zer adierazi nahi izan duzu liburuaren bidez?

Alde batetik haurrek nahi dutena egiteko askatasuna izan behar dutela. Bakoitzaren ametsa errespetatu behar da. Beste aldetik, baserri munduaren eta bizimoduaren aldarrikapena da. Gehienok gara Ettoreren ama bezalakoak eta.

Euskaraz egiten duzun lehen lana da?

Bai. Ideia bururatu zitzaidan eta haurrentzat zela argi kusi nuen. Ausartu nintzen, animatu ninduten eta horrela joan da. Esaldi laburrak eta orainaldian ditu. Egun, euskaraz gauza luze bat idaztera ez nintzateke ausartuko.

> "Liburua 8 urtetik gorako haurrei zuzendua dago, ilustrazio nahiko ditu. Arin irakurtzen da"

> "Haurrek nahi dutena egiteko askatasuna izan behar dutela adierazi nahi izan dut liburuan"

> "Baldintzak ez dira onenak baina eskualdean sormena ez dago krisian"

Umeentzat zuzendutako lehena da?

Ez. Komiki batzuk egin nituen euskarara, ingelerara, frantsesera eta portugesera itzuli zirenak. Ordukoan Natxo Fernandez gasteiztarrak marraztu zituen.

Zenbat lan dago liburu bakoitzaren atzean?

Ideia asmatu, idatzi, borobildu, marrazkigileari pasa... dezente.

Idazle gisa bilakaera sumatzen duzu?

Ekainean eleberria kaleratu nuen. Orain hau, espero dut hobera bilakatzea. Bilakatu naizen ez dakit baina gauzak bidea eginez lortzen dira.

Aiaraldeko literaturaren etorkizuna nola ikusten duzu?

Ondo. Antza denez, bada idaztea gogoko duen jendea. Giroa ere badago, baldintzak ez dira onenak baina eskualdean sormena ez dago krisian. Mikel Ayllon, Amado Gomez de Ugarte, Patxi Iturregi, Inma Roiz...

Zaila da idazle izatea?

Izatea ez, literaturatik bizitzea bai. Ezinezkoa da.

Krisialdiak nola eragin dio literaturari?

Krisialdi garaian sormenak gora egiten du, egoera latzei azalpenak bilatzeko edo lasaitasuna lortzeko beste bide batzuk ematen baititu.

BEZaren igoerak kulturan asko eragin du. Gero eta diru gutxiago dagoenez, liburu gutxiago saldu eta argitaratzen dira.

Liburu elektronikoekiko ze iritzi duzu?

Guretzat ez da txarra izango baina jendeak pirateatzeari ekiten badio guk ezingo dugu irabazirik eta lanerako bitartekorik izan. Euskarria ona iruditzen zait, baina sormen lana egiten duenarekiko errespetua ezinbestekoa iruditzen zait.

Aurrera begira baduzu beste proiekturik buruan?

Gaztelerazko eleberri bat dut buruan. Baina egunen batean euskaraz ekingo diot.

Patxi Iturregi
IDAZLEA

_Kamerinoa

Sarituak eta saritugabeak

Aurten Alice Munrok irabazi du Literatura Nobel saria, eta esan behar dut izugarri poztu nauela berriak, ipuingintzan aritzen baita idazle kanadarra, eta nik narrazio laburrak maite baititut aspalditik, praka motzetan nenbilenetik behintzat. Gainera, lehen erdaraz bakarrik irakurri ahal zen bere lana, eta orain, antza denez, ba omen dago aukera euskaraz ere, Meettok argitaletxearen eskutik.

Adituen arabera, aipagarria da Munroren literaturak egunerokotasunarekin duen lotura handia eta nola, egunerokotasun horren xumetasunetik abiatuta, gai eta kezka unibertsalei buruz mintzatzeko bide egokia aurkitzen duen beti. Ba, nik kontrako bidea egingo dut oraingo honetan, mundu zabaletik gure txoko txikira etorrita, alegia.

Izan ere, duela gutxi, Mikel Ayllon "Igartza" bekaren irabazlea izan dela irakurri dut, eta gogora etorri zait nola Ayllonek, ez aspaldi, 1999. urtean oker ez banago, "Laudioko Udala" ipuin lehiaketa irabazi zuen. Ni nengoen orduko epaimahai hartan eta zera pentsatu dut: kasualitatea ote? edo baliteke herri mailako sari apal hura gure idazle gazteak behar zuen aurreneko bultzada izatea. Ba, kontua da, eta hau da istorioaren zati tristea, duela bi urte gure ipuin lehiaketa bertan behera utzi zutela, eta ,ondorioz, gure geroko idazleak sari rik gabe gelditu direla.

_kultura

_kultur leihoa

WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak

ZINEMA
PRISIONERS
Txetxu Urkijo.

"Aste honetan "Prisoners" (2013) deituriko pelikula gomendatu behar dizuet. Aholku hau egiteko arrazoiak askotxo dira: metraje asoan zehar nozitzen den kalitate handiko suspensea, zinta osoa zeharkatzen duen lohikeria... ez pentsa gutxi direnik!"

MUSIKA
ATTICA REVOLUTION
Mario Corral.

"SOUL a soinu bat baino gehiago da, jarrera bat da, bizitzeko modu bat gure arima blai egindako uzten dela. Horretaz asturiar talde honek asko daki eta sentsibilitate hori disko honetan isurtzen du. Bere aurkezpen lana binilozko disko txiki bat da..."

ARGAZKI BILDUMA: Takomano espeleologia taldea Gorobeleko koba batean ikusgai webgunean

Gazteekin aurten ere multimedia rallyak egingo dituzte Argazkia: Aiaraldea.com

Abiatu dira aurtengo udazkeneko Multimedia eskolak

ERREDAKZIOA I Josu Garaio

Euskarazko komunikazioa sustatu asmoz, hitzaldi, ikastaro eta multimedia rallyak antolatu ditu aurten ere Aiaraldea Komunikazio Leihoak. Udazkeneko multimedia eskolak martxan dira dagoeneko.

Aurtengo edizioan lau ikastaro egingo dituzte: web edizioa eduki sortzaileentzat, maketazioa eta diseinu digitala, internet eta kazetaritza eta gurasoak eta sare sozialak. Azken horretan, nerabeen nortasunaren eraikuntzan sare sozialek duten eragina eta sare sozial motak ikasiko dituzte bertaratuek, besteak beste. Ikastaroa Koldo Diazek, EHUko Soziologia irakasleak eskainiko du, teoria eta saio praktikoak uztartuko direlarik. Saioak azaroaren 26an, abenduaren 5ean eta 12an izango dira.

Ikastaroetan parte hartzeko prezioa 10 eurokoa da. Elkarteko bazkideek, ordea, doan jasoko dute. Matrikulazioa ume.aiaraldea.com webgunean egin behar da. Webgune horretan jarri dute eskura multimedia eskolen inguruko informazio guztia.

".eus" domeinua hizpide

Hitzaldiak ere izango dira aurtengo eskoletan. Zehazki, lau gai sakonduko dituzte: euskarazko wikipedia, ikus-entzunezko lengoaia, "open street map" eta ".eus" domeinua. Iratxe Esnaolak, abenduaren 4ean Amurrioko udalbatzan emango duen hitzaldian egitasmoaren nondik norakoak azalduko ditu.

Aiaraldeko ikastetxeetan, aldiz, multimedia rallyak egingo dituzte. Hiru orduko saioetan, gazteek film labur baten gidoia sortu, grabatu eta editatu egingo dute. Eta, argazki bidez istorio bat kontatu. Saioen amaieran, berriz, talde guztiek egindako film labur eta komiki mutu bizidunak ikusiko dituzte. Iaz egin zuten aurreneko aldiz gazteekin multimedia rallya Zaraobe eta Laudio BHI institutuetan eta Aresketa ikastolan.

Jarraipen berezia

Bestalde, udazkeneko multimedia eskolen jarraipen berezia egingo du aiaraldea.com atariak. Horretarako sare sozialetan #ume2013 traola erabiliko dute.

Josu Bergara musikariak kontzertua eskainiko du larunbatean Laudion

Josu Bergara bakarlariak "Katiuska gorriak" diskoa aurkeztuko du Laudioko Keska tabernan. Emanaldia 20:30ean hasiko da. 1979an Ean jaiotako musikariak hirugarren diskoa aurkeztuko du Aiaraldean. Aurrez, *Karramarroen hiria* eta *Nora zoaz* lanak kaleratu izan ditu eta. Azken urteetan Londresen, Bartzelonan, Madrilen eta Euskal Herrian hainbat kontzertu eskaini izan ditu.

"Lingua nabajorum" antzezlana eskainiko dute Amurrio Antzokian

Max saria jaso duen *Lingua nabajorum* antzezlana ikusteko aukera egongo da bihar Amurrio antzokian. Sarrerak 6 euro balioko du. Euskaraz egindako obra elkarrizketa burugabe, bizkor eta ironiaz beteetan oinarritua dago.

Aktoreak aski ezagunak dira: Mikel Martinez eta Patxo Telleria, hain zuzen ere. Euskararen jatorriaren eta bilakaeraren segida eroa umoretik aurkeztuko dute.

RZ:
Plazer sexuala

Entzun Aiaraldea Irratian plazer sexualen inguruan egindako RZ irratsaioa

JON
Muñoz
IRAKASLEA

_Lurpetik

Lizarrako estatutuaren eskaera Hego Euskal Herriko lurraldeentzat une historikoa izan zen, baita gure eskualdeko herrientzat ere. 1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika aldarrikatzearen ondorioz, euskal lurraldeek aspalditik eskatzen zuten euskal estatutua izateko aukera berpiztu zen. Nahi honen atzetik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 582 udal aurkitzen ziren, Aiaraldekoak hauen artean. Udaletan alkateen batzorde iraunkorra sortu eta estatuaren inguruko galdeketa egin zen. Horien artean garai horretan Laudioko alkatea zen Felix Zarandona aurkitzen zen. Alkate hauek, 1931ko maiatzaren 31n, Eusko Ikaskuntzari proiektuaren zirriborroa egiteko eskatu zioten, Euskal Estatuaren Estatutu Orokorra izenekoa. Estatutua 4 herrialdeetako 520 udaletan bozkatu zen, 480etan bozak aldekoak izanik. Alkateen batzordeak, 1931ko ekainaren 14rako, Estatutua eztabaidatzeko udalen asanbladarako deia egin zuen, Lizarran gauzatuz. EAJ eta tradizionalisten gehiengoa zuten udalek proiektua ia eztabaidarik gabe onartu zuten eta "Lizarrako Estatutua" izena eman zioten. Baina Lizarrako estatutuari azken pausua falta zitzaion, Espainiako Gorteetan onartzearena. Horretarako 1931ko irailaren 22an euskal diputatuek eta alkateen ordezkaritza batek Euskal estatutua Espainiako Gorteetara eraman zuten, baina bertan ez zen onartu, Estatutuak zeukan Eliza-Estatuaren harremanei buruzko artikulua konstituzioaren kontrakotzat hartu zelako.

_kirola

ARETO FUTBOLA:

Ander Urkijo Uxoa taldeko jokalaria fitxatu du Euskadiko selekzioak

Laudioko Uxoa taldeko Ander Urkijo jokalaria areto futbolean Euskadiko selekzioarekin jokatzeko deitu dute. Egun, hirugarren mailan lehiatzen ari da. Uxoa klubaren esanetan, konstantziaren eta egindako lan onaren emaitza da: "Laudion areto futboleko harrobia dago, zaindu behar dugu".

PATINA:

Patinatzen ikasteko ikastaroa egingo dute Artziniegako kiroldegian

Artziniegako udalak patinetan ibiltzeko formakuntza saioak eskainiko ditu larunbatetik aurrera. Martxoaren 26ra bitarte asteburuetan elkartuko dira izena eman dutenek.

Udalak jakinarazi duenez izen-ematea ostiralean bukatu zen eta plaza guztiak bete egin dira.

GIMNASIA ERRITMIKOA:

Espainiako Kopan oso postu onak lortu dituzte Amurrioko gimnastek

Aresketa klubeko Maialen eta Jugatxi Guadalajaran jokatu den Espainiako Kopan lehiatu dira asteburuan. Biak Sakonetakoekin aritu dira.

Maialen laugarren sailkatu da haurren kategorian. Jugatxik, aldiz, hirugarren postua lortu du junior mailan. Biek taldekako modalitateetan lortu dituzte sariak.

KICK BOXING

"Kick boxingean sariak irabazteak ez dizu bizitza aldatzen, motibazioa eman baizik"

IBAI RUIZ (Amurrio, 1990) kick boxingean aritzen da. 2010ean eta 2012an Euskadiko Txapelketa irabazi zuen. Aurten, aldiz, Espainia mailakoa. Egun, Portugaleteko klubeko kidea da. Kirol noblea baina gogorra dela dio.

ERREDAKZIOA I Aimar Gutierrez

Ibai Ruiz kickboxing kirolaria da; Euskadiko Txapelketa hainbatetan irabazi du. Baita 2013ko Espaniako Txapelketa ere. Borrokalariak aukera berdintasunean lehiatzen direla-eta, kirol noblea iruditzen zaio. Izan ere, pisuaren eta mailaren araberako konbateak izaten dira. Larunbatean Irlandako selekzioaren aurka lehiatu zen.

Nolatan hasi zinen jolasten kickboxingean?

10 urterekin hasi nintzen, Amurrion aitak apuntatu ninduen. 15 urterekin aldatu egin nuen, gogorrago entrenatzea erabaki nuen. Laudion lau urte eta erdi eman nituen entrenatzen talde batean. Orain Portugaleten nago. Lau urte daramatzat han.

Zerk bultzatu zintuen kirol honetara?

Niri futbola gustatzen zitzaidan, baina aitak mugendora, antzeko kirol batera, apuntatu ninduen. Pixkanaka, kickboxinga gustatzen hasi zitzaidan eta apuntatu egin nintzen.

Zergatik?

Kirol noblea da, ezberdina. Lehiakide guztiak aukera berdintasunean gaude (pisua, maila...). Oso kirol gogorra da.

Profesionalki lehiatzen ibili zara, ez?

Neoprofesional mailan nago orain. Aurten 6-7 borroka izan ditut. Gainera ez dut lesiorik izan, hori oso garrantzitsua da. Kickboxingean lesioak oso normalak dira. Gurean ez da lehiaketarik egoten, entrenatzaileari pisuaren araberako borrokalariak eskatzen dizkiote. Borroka hitzartuak dira. Beste alde batetik Euskadiko eta Espainiako txapelketak daude. Azken urteetan bietan hartu dut parte.

> "Konbateak motzak dira irabazten zoazenean, eta amaiezinak galtzen zaudela"

Saririk irabazi duzu?

2010ean eta 2012an Euskadiko Txapelketa irabazi nuen. 2013an, aurten, Espainiako amateur mailakoan lehengo geratu nintzen, Leongo Ponferrada herrian. Kirol honetan sariak irabazteak ez dizu bizitza aldatzen, motibazioa eman baizik. Jendeak gaubeletan arreta eta miresmen gehiagorekin begiratzen zaitu.

Eskualdean kirol honek badu zaletasunik?

Lekuaren arabera. Aiaraldean apenas dago zalerik. Galizian, Asturias, Herrialde Katalanetan ..zaletasun handia dute.

Etorkizuna nola ikusten duzu?

Hemendik kanpo. Kirolari profesional izateko, Madrilen, Bartzelonan edo Kanariar Uharteetan izan beharko du. Bertan baitago mailarik gehien.

Nolakoak dira entrenamenduak?

Fisikoak, teknikoak eta jotzea. Boxeolarien eskularruekin, manoplekin, kolpeak lantzen ditugu. Paoekin, aldiz, hankak potentziatzen ditugu, ostikoak emateko.

Eta konbateak?

Amateur mailan 3 asalto bi minutukoak, neoprofesionalean 4 asalto 2 minutukoak eta azkenik maila profesionalean 3 asalto 3 minutukoak. Motzak irabazten zoazenean, amaiezinak galtzen zaudela.

Indarra ala azkartasuna, zer da garrantzitsuagoa?

Biak, ondo konbinatu behar dira. Korrika egitea ere oso ona da, gimnasioan pesak eta abar egitea. Eta, kideekin jotzea.

Kirol agresiboa da?

Ez, tontoren bat beti dago baina golpeak ondo eramaten ditugu, laguntasunez. Saihetsa, ahoa apurtzea normala da baina hor geratzen da dena. Niri besoa, belauna, ahoa, saihetsa... apurtu didate. Entrenamenduak babestuta egiten ditugu, konbateetan ez daramagu ezer.

Kirolari bezala zer erronka jarri diozu buruari?

Urtea osorik bukatzea. Gauzak ondo badoaz jarraitzea gustatuko litzaidake gorputzak ahal duen arte.

Eli
Pinedo
ESKUBALOI JOKALARIA

_Helmugari so

Emakume kirolaria izateaz harro

Asko dira emakume kirolari profesionala izateko bidean aurkitzen ditugun oztopoak.

Komunikabideetan azaltzeko tituluak irabaztera derrigortuta zaude, eta hala eta guztiz ere, tarte gutxi eskaintzen diote emakumezkoen kirolari. Lehendik emakume kirolarion egoera zaila bazen ere, gaur egun zer esanik ez.

Krisi ekonomikoak emakume kirolarion baldintzak okerrera eraman ditu baina hori ez da nire ustetan arazo larriena.

Badirudi gizartearen alderdi batek gure esfortzua eta lana ez duela gizonezkoarekin alderatzen. Hau dela eta beste irtenbide batzuk bilatu behar ditugu, hau da, kirolaria izateaz gain beste lan mota batzuk aurkitu behar ditugu. Horretarako ere arazo ugari izaten ditugu noski, zeinek emango digu lana astean zehar partiduak baditugu han edo hemen? Zoritxarrez daukagun egoera ikusita, gure kirol urteak nahi baino motzagoak izaten dira eta batzuetan onenean zaudenean uztera behartuta ikusten gara.

Londreseko joko olinpikoetan 18 domina lortu ziren, horietatik 11 emakumeek irabazi zituzten. Datu hau ez al da nabarmena emakume nahiz gizon kirolarien arteko berdintasuna lortzeko?

Hala eta guztiz ere, emakume kirolaria izateaz oso harro sentitzen naizela aitortu behar dut, borrokatzen jarraituko dugu merezi dugun berdintasun hori lortu arte.

_kirola

DUATLOIA: Eneko Gurrutxaga garaile Urduñako proban

Mendi eta bizikleta proba bat baino gehiago egin dira Urduñan. Irudian, Euskadi Extrem Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | | Aitor Aspuru Saez

Igandean mendi duatloia egin zuten Urduñan. Eguraldi txarra egin arren, 48 partaidek burutu zuten proba. Helmuga aurreneko zeharkatu zuen kirolaria Eneko Gurrutxaga izan zen. Villabonako lasterkariak ordu bat, 21 minutu eta 49 segundo behar izan zituen ibilbidea betetzeko. Igor García Gorosito bigarren sailkatu zen, 10 segundu beranduago.Emakumeen partaidetza oso txikia izan zen, Saioa Olite izan baitzen mendi duatloira hurbildu zen neska bakarra.

Eskualdeko aurrena Iñaki Isasi zen, zortzigarren postuan. Haren atzetik helmugaratu zen Ruben Larrinaga, hemezortzigarren.

Eguraldi txarrak eta lokatzak markatu zuen proba. Ibilbideak hiru zati izan zituen. Lehenengoan, parte-hartzaileek korrika 6.5 kilometroko bidea egin behar izan zuten. Ondoren, bizikleta harturik 15,4 kilometro egin zituzten. Azken zatian, aldiz, 3 kilometroko bidea igaro behar izan zituzten lasterka.

Urduñako mendi duatloia antolatzeko Gualdetxu mendi bizikleta taldea, Urduñako txirrindulari elkartea eta udala aritu dira elkarlanean.

Proba Foru Plazatik abiatu zen lehiaketa, 10:30ean. Ibilbidean zehar, besteak beste, Antiguako Ama, Zedelika eta Lendoñobeiti zeharkatu zituzten.

Unai Yus zen lehen postuan Lendoñobeitin, baina ibilbidean egindako oker baten ondorioz denbora dezente galdu zuen eta 3. postuan bukatu zuen azkenean. Foru Plazara itzulitakoan[1] Eneko Gurrutxaga heldu zen lehenbizikoz. Bizikleta utzi eta azken 3.3 kilometroak oinez egin behar izan zituzten lasterkariek.

Euskal Herriko zirkuitua

Urduñako proba Euskal Herriko zirkuituaren baitan dago. 2010ean ekin zioten Euskal Herri mailan zirkuitua antolatzeari. Aurtengo edizioak, 10 herritako txapelketa du ardatz[2]. Zehazki; Mallabian, Arriaranen, Lizarran, Zallan, Amasan, Murgian, Ibarran, Ozaetan, Urduñan eta Zubietan egin dituzte era honetako duatloiak. Ibarran eta Ozaetan bina lehiaketa egin dituzte; luzea eta motza.

Alabaina, ez da Aiaraldean Euskal Herriko mendi duatloia egiten den lehen aldia. Izan ere, iaz, Amurrion egin zen lasterketa bat.

Guztira 320 lagun inguru ari dira parte hartzen. Denek, ordea, ez dituzte lasterketa guztiak egiten. Proba bakoitzean lortutako puntuazioen arabera, sailkapen orokorra egiten dute. Hala, Euskal Herriko Zirkuituan herri eta proba ezberdinetan puntu gehien biltzen duena izango da garaile. Helburuen artean daude kirola ezagutaraztea, kirolari herrikoiei ate bat zabaltzea, naturarekiko lotura eta errespetua, elkarlana, sustapena edo promozioa eta herri txikietara iristea.

Hiztegia: *itzulitakoan[1], bueltatutakoan / ardatz[2], oinarri.*

info+: Bideoa: *Azaroaren 24an Urduñan jokatu zen Mendi duatloiaren bideokronika.*

_Herriko plaza

_agurrak

Iaio eta Zuri

Zorionak bikote! Urteak igaro ahala gero eta ederragoak zarete, barrutik zein kanpotik!Musu bat koadrilakoen partez! **Koadrila**

Ariadna

"Gure andereño maitagarriari afari, jaia eta ajea opari Algaratsuen partez musu ugari! (Areta beti, bizikletaz)" **Zure lagunak**

Irati eta Julene

Zelango bikotea!!Azaroa, zuen hilabetean...Ospatu, gozatu eta ondo pasatu...Zorionak muxutxuak.. **Senideen partez**

Amaia

Bartzelonan egonda ere Mila kilo zorion dizugu eskeintzen!, 1,2,3..27!!ZORIONAK KARADA!!!! **Zure lagunak**

Marta

Marta, mila esker denagatik. Betiko gure bihotzean Maitasunez!!!! **Etxaurren ikastola**

_botikak

AZAROAK 28
Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

AZAROAK 29
Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

AZAROAK 30
Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

ABENDUAK 1
Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

ABENDUAK 2
Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

ABENDUAK 3
Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

ABENDUAK 4
Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

ABENDUAK 5
Laudio: EGIA (Zumalakarregi 13)
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

ABENDUAK 6
Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Arespalditza: CACERES GRAUPERA (Udaletxeko plaza 9)

ABENDUAK 7
Areta: AIS (Gasteiz 2)
Arespalditza: CACERES GRAUPERA (Udaletxeko plaza 9)

ABENDUAK 8
Areta: AIS (Gasteiz 2)
Arespalditza: CACERES GRAUPERA (Udaletxeko plaza 9)

ABENDUAK 9
Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

ABENDUAK 10
Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

ABENDUAK 11
Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

EUSKARAK
365
EGUN
noiznahi, nonahi
orain, hemen
euskaltzaleen topagunea
365egun.eu

_merkatu txikia

DOAN

TXAKUR JAIO BERRIAK
Euskal Artzain Txakurra eta Collie arraza-gurutzaketa duen txakur eme baten kumeak Irudiak jasotzeko aukera dago.
ieragar@hotmail.com
618243937

SOFAK ZAHARRAK
oparitzen dira, txokoetarako egokiak.
665714893 (Whatssapp)

SALGAI

MENDIKO BOTAK
Scarpa Denali XT 26.5
Egoera onean, dyamir fijazioetarako
Prezioa: 40€
625706914 (Artziniega)

MENDIKO BOTAK
Asolo Route GTX 40 2/3
Alpinismorako. Ia erabili gabe.
Prezioa: 90€
625706914 (Artziniega)

PATINAK
Lineako lau gurpildun patinak. Iaz erosita, behin bakarrik erabilia. Oso egoera onean. 38 oin taila.
Prezioa: 15€
635202178 (Laudio)

UMEENTZAT KORRIKA JOATEKO BIGARREN ESKUKO KAMIOIA
10 eta 36 hilabete bitartekoentzat pasiloetatik joateko kamio edukatiboa. Sanson marka.
636832015 (Laudio)

METRONOMOA
WITTNER Piccolo
Egoroera onean, jatorrizko kutxarekin.
Prezioa 15 euro
facebook.com/comprameloenurduna

BIDEOKAMERA
HANDYCAM DVD203E
Egoera onean, zaindua (5 orduko erabilpena)
Osagarriak barne
Prezioa negoziagarria: 200 euro
facebook.com/comprameloenurduna

BILA

TXAKURRARENTZAT KOTXE TRANSPORTINA
Artzain txakurrarentzako bigarren eskuko kotxerako transportina erosi nahian nabil.
sorgintxo_txori@hotmail.com
677083251 (Arrankudiaga)

UMEAK IBILTZEKO TAKA-TAKA baten bila nago.
630151688
615008771

etxaurre inmobiliaria

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 124.000 €
67 m², 4 logela, bainugela, sukaldea balkoiarekin, igogailua, kanpora ematen du, eraberritzeko.
Erref.: 167391

ATXIKITAKO ETXE BERRIAK ARAKALDON
Prezioa: 315.000 €
137 m², 3 logela, 3 bainugela, sukaldea, eraikuntza berria, bi autoentzako garajea, loratégia.
Erref.: 167390

BASERRIA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 360.000 €
290 m², 3 logela, 2 bainugela, sukalde zabala, bizitzera sartzeko, txokoa, bi autoentzako garajea, lursaila.
Erref.: 167388

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 118.000 €
90 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera begira, terraza, eraberritzeko aukera asko, herrigunean.
Erref.: 160329

DUPLEX-A SALGAI URDUÑAN
Prezioa: 216.000 €
95 m², 2 logela, 2 bainugela, altzariz hornitutako sukaldea eta kanpoaldera, igogailua, balkoia, bizitzera sartzeko.
Erref.: 167189

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 192.000 €
82 m², 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, eraberrituta, kanpoaldera, igogailua, trastelekua, balkoia, negoziagarria.
Erref.: 167202

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 125.000 €
80 m², 3 logela, bainugela, sukaldea kanpoaldera eta balkoiarekin, berriketa beharrezkoa, trastelekua.
Erref.: 167346

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_herriko plaza

_agenda

11.28 OSTEGUNA

17:00 LAUDIO
IKUSKIZUNA
Emakumeen aldeko maratoia
Kultur etxean

19:00 LAUDIO
MOBILIZAZIOA
Kalitatea, enplegu orokorra guztiontzat
Plazatik

11.29 OSTIRALA

15:00 URDUÑA
HITZALDIA
Nola lagundu euskaraz etxeko lantan?
Andra Mari eskolan

22:00 SARATXO
SARATXOKO JAIAK
Born#1 eta Five Corners
Plazan

17:30 URDUÑA
BERTSO ANTZERKIA
Galtzagorriei to, inaxito!
Kultur etxean

19:30 ARETA
LEHIAKETA
Euskadiko lau terdiko txapelketa
Frontoian

19:30 AMURRIO
HITZALDIA
Porrotaren balioa, eskalatu ezin izan nituen 4 mendi
Katekesi aretoan

17:30 OKONDO
HITZALDIA
Jolasak sexistak izan daitezke?
Eskolan

21:30 LAUDIO
KONTZERTUAK
Hell vision, Atxurre eta Al infierno en Goitibehera
Orbeko etxean

11.30 LARUNBATA

20:30 LAUDIO
IKUSKIZUNA
Gabrielen lekua
Aldai plazan

20:00 AMURRIO
ANTZERKIA
Lingua Navajorum
Amurrio antzokian

10:00 OROZKO
ERAKUSKETA
Merkatu solidarioa
Museoan

11:00 AMURRIO
TAILERRA
Gaztelu puzgarriak, jolasak eta tailerrak
Frontoian

12:00 OROZKO
HITZALDIA
Indarkeria menperatu duten emakumeen testigantza positiboak
Museoan

12:30 ARTZINIEGA
EUSKARAREN EGUNAK
Bertsopoteoa
Herrian zehar

13:00 URDUÑA
EUSKARAREN EGUNAK
Poteo euskalduna
Herrian zehar

14:30 ARTZINIEGA
EUSKARAREN EGUNAK
Kantu bazkaria
Frontoian

13:00 URDUÑA
EUSKARAREN EGUNA
Herri bazkaria
Mariaren Lagundian

17:30 ARTZINIEGA
EUSKARAREN EGUNAK
Oskizola dantzaplaza
Frontoianr

18:30 LAUDIO
HITZALDIA
Libre: gazte auzipetuak
gaztetxean
1
19:30 AMURRIO
HITZALDIA
Fracking
Katekesi aretoan

19:30 LAUDIO
EKITALDIA
Meli Estebani omenaldia
Aldai plazan

20:30 LAUDIO
MOBILIZAZIOA
Epaiketen aurrean Libre!
Lamuza plazatik

22:00 LAUDIO
KONTZERTUAK
Libre gaua: Hi!bete, Tinko eta Ez!
gaztetxean

12.01 IGANDEA

08:30 SARATXO
IBILALDIA
XI. Mendi martxa
Plazatik

08:30 LAUDIO
IBILALDIA
Jon Pagazaren martxa
Plazatik

11:00 ARTZINIEGA
EUSKARAREN EGUNAK
Patxin eta Potxin pailazoak
Frontoian

12:30 ARTZINIEGA
EUSKARAREN EGUNAK
Altxorraren bila jolasa
Herrian zehar

13:00 OROZKO
OMENALDIA
Jon Pagazari
Kanposantuan

12.02 ASTELEHENA

15:00 URDUÑA
HITZALDIA
Euskara, eskola, familia
Herri ikastetxean

17:30 URDUÑA
IPUIN KONTALARIA
Euskal Herriko kontuak
Kultur etxean

12.04 ASTEAZKENA

18:30 AMURRIO
HITZALDIA
".eus" domeinua
Udalbatza aretoan

19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Libre:auzipetuekin mahaingurua
Gure Aukeran

12.05 OSTEGUNA

19:00 AMURRIO
POTEOA
Euskal kantu pintxo-poteoa
Herrian zehar

12.06 OSTIRALA

19:30 ARETA
TXAPELKETA
Euskadiko Federazioko lau t'erdiko txapelketa
Frontoian

12:00 LAUDIO
ERAKUSKETA
Peruko produktuak
Herriko plazan

12.07 LARUNBATA

15:00 URDUÑA
IRTEERA
Durangoko azokara, ñau!
Busa herriz herri

14:00 SARATXO
SARATXOKO JAIAK
Herri bazkaria eta erromeria
Txokoan

_ikusmiran

ZINEMA

11.29 OSTIRALA

"AMAREN ESKUAK"
LAUDIOKO LHUI
19:00etan / 2€

11.30 LARUNBATA

"PROFESOR LAZHAR"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan / 2€

12.01 IGANDEA

"ZIPI Y ZAPE Y EL CLUB DE LA CANICA"
AMURRIO ANTZOKIAN
17:30ean / 3.6€

"GRAVITY"
AMURRIO ANTZOKIAN
19:45etan / 4.8€

12.06 OSTIRALA

"DORAEMON Y NOBITA HOLMES EN EL MISTERIO DEL MUSEO DEL FUTURO""
AMURRIO ANTZOKIAN
17:30ean / 3.6€

"EL MAYORDOMO"
AMURRIO ANTZOKIAN
19:30ean / 4.8€

12.07 LARUNBATA

"PROFESOR LAZHAR"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan / 3€

12.08 IGANDEA

"DORAEMON Y NOBITA HOLMES EN EL MISTERIO DEL MUSEO DEL FUTURO""
AMURRIO ANTZOKIAN
17:30ean / 3.6€

"EL MAYORDOMO"
AMURRIO ANTZOKIAN
19:30ean / 4.8€

12.09 ASTELEHENA

"EL MAYORDOMO"
AMURRIO ANTZOKIAN
20:00etan / 3.6€

BEREZIAK

EUSKARAREN EGUNA

URDUÑA

12.03. ASTEARTEA. 17:00etan
Zurezko betiko jolasak
TOKIA: Foru plazan

AMURRIO

12.03. ASTEARTEA. 17:00etan
Badu bada erakusketa ikusteko irteera
TOKIA: Frontoian

12.03. ASTEARTEA. 17:00etan
Marzel magoa, tailerrak eta txokolatada
TOKIA: Frontoian

ARRANKUDIAGA-ZOLLO

11.30. LARUNBATA. 11:00etan
Euskararen eguna: antzinako jolasak, trikipoteoa, bazkaria, kantaldia eta igel txapelketa
TOKIA: Herrian zehar

OROZKO

12.05. OSTEGUNA. 20:30ean
Kantupoteoa
TOKIA: Herrian zehar

LAUDIO

12.03. ASTEARTEA 12:00etan
Adierazpen instituzionala eta Arestiren irakurketa kolektiboa
TOKIA: Herriko plazan

12.03. ASTEARTEA 19:30ean
Bertso-band kontzertua
TOKIA: San Pedro elizan

ARTZINIEGA

12.03. ASTEARTEA. 10:30ean
"Hamaika kantatzeko" ipuin lanketa partehartzailea
TOKIA: Ikastetxean

12.03. ASTEARTEA. 19:00etan
"Ur Sakonetako Bakardadea" (si koblok modalitatea: itsaslabarretan eskalatzen) solasaldi proiekzioa
TOKIA: Etnografia museoan

_ezin galdu

".EUS"INTERNETEKO DOMEINUAREN HITZALDIA AMURRION: Abenduaren 4ean Iratxe Esnaolak "Euskara eta euskal kultura interneten" hitzaldia emango du Amurrioko udalbatza Aretoan. Solasaldia 18:30ean hasiko da, eta euskal domeinuaren proiektua azalduko du. Udazkeneko Multimedia Eskolen baitan dago ekitaldia.

_merkatua

BASERRITARREN AZOKAK AIARALDEAN

OSTEGUNA
LAUDIO Herriko Plazan
DENETARIK

OSTIRALA
AMURRIO San Anton plazan
DENETARIK

LARUNBATA
URDUÑA Hileko 1º larunbata
Foru plazan
OROZKO Herriko Plazan
OGIA ETA GAZTA

* Hamabostaldi honetan ez dago Azoka berezirik

PREZIO ORIENTAGARRIAK MERKATUETAN

BARAZKIAK	
Patata	1-1.5 €/kg
Letxuga	0.80-1 €/kg
Azelgak	2 €/kg
Tipulak	3 €/kg
Pipermorroa	6 €/kg
Kalabaza	2 €/kg
Indabak	8-10 €/kg
Borrajak	1.5€
Azalorea	1.2-1.5€
Porrua	1.50-2 €/sorta
BESTEAK	
Arrautzak	3 €/dozena
Gari ogia	2.30 €/kg
Idiazabal gazta	16 €/kg

_kontra

aiaraldea

Jabi Isasi

Kepa Sojo

"Eskualdetik beldurrezko pelikula baterako nire dentista aukeratuko nuke"

KEPA SOJO (Laudio, 1968) zinema zuzendaria eta EHUko zinearen historiako irakaslea da. Euskal Herrian eta nazioartean sari ugari jaso ditu. Haren esku balego, ordea, komedia egiten dutenak sarituko lituzke.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren

KEPA SOJO (Laudio, 1968) zinema zuzendaria eta EHUko irakaslea da. Film luze eta laburrak egiten ditu. Aurkeztutako azkena, *Loco con ballesta* mundu mailako 26 jaialditan hautatu dute. San Petersburgon (Errusia) eta San Marinon saritua izan da. Baita Euskal Herria eta Espainian ere. Kameraren atzean egotea aurrean baino errazagoa dela dio. Euskaraz egiteko film bat du buruan.

Zinearen historiako irakaslea zara EHUn. Zinearen historia ere egiten zabiltza... Zenbat film ekoitzi dituzu?

Ekoitzi bakarrik nire lehenengo film laburra: *100 maneras de hacer el pollo al chilindrón*. Gero ekoizle ezberdinekin lan egin dut eta orain BANATU FILMAK ekoiztetxearekin azken filma egin dugu eta oso pozgarria izan da haiekin lan egitea

Irakasle ala zinema zuzendari izatea, zer duzu nahiago?

Biak ondo daude. Nire benetako bokazioa zine ikerlaria eta irakaslea izatea zen.

Kasualitatez hasi nintzen zinema zuzentzen eta bi gauzekin oso bizitza polita daukat.

Zer zuzenduko zenuke gizartean, gidoia zure esku balego?

Ikusiko nuke gaurko egoera komediaren ikuspuntutik.

Kameraren aurrean ala atzean, non egoten da hobeto? Zein da lan zailagoa?

Nahiago dut kameraren atzean egon.

Aurrean batzuetan egon naiz eta ez da erraza. Horretarako aktore bikainak dauzkagu.

Sari ugari jaso dituzu. Zuk nor edo zer sarituko zenuke?

Komediak asko atsegin zaizkit. Eta epaimahaiaren iritziz ia beti sarietatik kanpo geratzen dira.

Nik sari asko irabazi ditut komedia egiteagatik baina publikoak hauetako batzuk eman dizkit.

Komedia egiten dutenentzako izango lirateke nire sariak.

Umorezko film bat egiteko eskualdeko zein pertsonaia aukeratuko zenituzke?

Eskualdean pertsonaia bitxiak daude (edozein lekutan bezala) baina hauei buruzko film bat egiteko ez dakit ba.

Eta beldurrezkoa pelikula baterako?

Nire dentista (ez dizuet izenik esango). Berak badaki nor den.

Zein da beti amestu duzun eszena?

Gustatuko litzaidake eszena bat egitea eta urte batzuk pasatuko direnean mundu guztiak nire zinema ezagutzea eszena hau gogoratzean.

Eta hori lortzeko bidea?

Badaukat euskaraz egiteko film bat.

Han dago gogoan izango duzuen eszena. Ez dizuet orain-dik kontatuko zeri buruzkoa izango den.

Belate Olabarria
IRAKASLEA

_Leihotik

Euskaldun izatea

Euskararen ezagutza indartuz goaz, baina euskaldun kopurua hazten ari al gara? Sarri kopuruetan geratzen gara eta ematen du hezkuntza eta hedabideak euskaratuz gero, ikastea eta erabiltzea etorriko dela, baina faktoreak askoz gehiago dira. Euskaldun izatea gehiago da; Euskal Herriko kultura bizitzea, maitatzea, konpartitzea, euskal historiaren gutxieneko ezagutza izatea... Honekin askok pentsa lezake erabilera eta hiztun kopurua bigarren mailan kokatzen ditudala. Ez da hori, ez bada, argi dudala sentsibilizazioaren eta motibazioaren bidetik etorriko dela erabilera, eta ez alderantziz. Euskal Herriak euskara ezagutzen dutenak ez ezik, euskaldun sentitzen eta euskaraz bizi direnak ere behar ditu. Alegia, Euskal Herria bere osotasunean gozatzen dutenak. Gure amak ez zigun hizkuntza eman. Aitak transmititu zigun baina motibazioa eta sentsibilizazioa biek, berdin-berdin. Argi daukat amari esker naizela euskaldun osoa (kultura maite dut, folklorea bizi dut, euskal geografia ezagutzen saiatzen naiz...) eta aitari esker euskalduna.

Gabonetako sari nagusia gurean salgai

Zumalakarregi 3 - Anbulategiaren ondoan
01400 - LAUDIO
T. 94 672 04 93 - M. 652 77 81 37
www.lacasaderesa.com

La Casa de Resa
Lotería Areta

XARMANT Txakolina
Ardo desberdin batez gozatu

Jatorrizko izena
ARABAKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE ÁLAVA
DENOMINACIÓN ORIGEN

Txakoli
Xarmant
AMURRIO (ARABA) TLFNOA: 945 89 12 11
WWW.XARMANT.ORG